



DIAGNOSTIKO KRONIKOA ETA OSASUN MENTALA LEHEN MAILAKO ARRETAN (1. aldia)

INFORMAZIO OROKORRA

IKASTURTEA: 2017/2018

ARLOA: Osasun Zientziak

KREDITUAK: 1 ECTS kreditu (*)

MATRIKULA TASA: 80 euro

ARDURADUN AKADEMIKOA: **Eduardo Ginestal Gómez**

AURKEZPENA

Min kronikoak biztanleriaren % 20ri baino gehiagori erasaten dio, eta gure egungo dema sanitario handietako bat bihurtzen ari da. Hala eta guztiz ere, egoera horrek ez du beharko lukeen tokirik Osasun Zientzietako ikasleen heziketako edukietan.

Min kronikoaren tratamendua diziplinartekoa da eta, beraz, pertsona sanitario guztiek jaso beharko lukete gai honi buruzko heziketa. Mina tratatzeko Unitate Bereziak sortu ondoren, agerian geratu da ohiturazko farmako bidezko tratamenduek eragin eskasa dutela oinaze kronikoa duten paziente askoren gainean. Izan ere, epe erdira/luzera egindako azterketa kliniko gehienetan, jokabidera eta alde kognitibora bideratutako teknikak oso baliagarriak dira mina murriztu eta pazienteen bizi kalitatea hobetzeko orduan.

Aurrekari horietan oinarrituz, erabaki dugu eduki espezifiko horiek Aho eta Aurpegiko Mina eta Loki Barailletako Nahasmenduak graduatu ondoko ikasketan ematea, pertsona sanitario guztientzat interesgarria izango den ikastaro osagarrian.

ZURE BILA GABILTZA

Ikastaro hau osasuneko profesional guztientzat da. Min kronikoa prebalentzia **oso altuko eta konponbide zaileko "gaitz" bat da. Tratamendu espezializatua** zati batean bakarrik da eraginkorra, eta mindutako pazienteek lehen mailako arretako profesionalen laguntza behar dute.



Ikastaro honen helburua da min kronikoari eta osasun mentalari buruz eguneratzea, paziente horiek kudeatzera begira eta eraginkortasun frogatua duten tratamenduko teknika kognitiboak zein jokabidezkoak ezagutzeko. Aditu profesionalek erregulazio emozionalaren, terapia kognitibo-jokabidezkoaren, mindfulnessen eta min kronikoko arreta osoko ariketen baliagarritasuna azalduko dute, eta teknika horiek modu parte-hartzaile batez azalduko dira mintegian. Horretarako, 20 da gehienez izena eman dezaketen pertsonen kopurua.

IRTENBIDE PROFESIONALAK

Iraupen laburreko ikastaro bat da, baina gure ustez, oso baliagarria da min kronikoa duten pazienteak tratatzen dituzten profesionalen eguneroko praktikan. Transmititzen diren ezagutzak ezin bestekoak dira horrelako pazienteekin aritzeko orduan, informazio nahikoa eman behar baitzaie haien bizi kalitatea hobetzeko dauden terapia aukerei buruz.

BALDINTZAK

Edozein Osasun Zientziatako lizentziatua edo graduatua izatea.

IRAKASKUNTZA

HASIERA ETA AMAIERA DATA: 2018/04/13

EMATEKO TOKIA: Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea

HIZKUNTZA: gaztelania

INFORMAZIOA/KONTAKTUA

IKASTEGIA: Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea

SAIL EDO ORGANO ARDURADUNA: Estomatologia II saila

HELBIDEA: Sarriena z/g. 48940 Leioa (Bizkaia)

TELEFONOA: 94 601 29 17

FAXA: 94 60135 99

POSTA ELEKTRONIKOA: cristina.garcia@ehu.eus

(*) ECTS kreditu batek 25 orduko balioa du.